



SAN ADRIÁN

ELLERHEIN GIRL'S CHOIR
TALLINN (ESTONIA)

JUEVES 27 DE OCTUBRE

Iglesia de San Adrián

20:00h.

INGRID KÖRVITS DIRECTOR/ZUZENDARIA

El Ellerhein Children's Choir, predecesor del Ellerhein Girls' Choir, fue creado en 1951 por el profesor Heino Kaljuste (1925-1989), quien dirigió y desarrolló el coro hasta el final de sus días. Desde 1970, Tiia-Ester Loitme comenzó a trabajar con el coro como segunda directora y fue directora titular del coro de 1989 a 2012. El coro pasó a llamarse Ellerhein en 1969, en el centenario de los Festivales de la Canción de Estonia. A lo largo de los años, Ellerhein se ha convertido en un estudio coral, que incluye el coro de preparación de Ellerhein, el coro de niños de Ellerhein y el coro de niñas de Ellerhein. Además de dar conciertos, todos los cantantes reciben formación en clases de canto, solfeo y armonía. El coro utiliza el sistema Kodaly cuando aprende un nuevo repertorio.

En junio de 2012, Ellerhein celebró su 60 cumpleaños con un grandioso concierto en el Estonia Concert Hall.

Desde 2012, el puesto de director titular lo ocupa Ingrid Kõrvits. Ülle Sander es la directora de coro y profesora de solfeo, Egle Veltmann la pedagoga vocal, Kadri Toomoja la pianista y Sigrid Leppmets la manager del coro. El repertorio del coro consiste en música coral clásica y contemporánea de destacados compositores de todo el mundo.

Ellerhein ha tenido éxito en muchos concursos corales internacionales. En abril de 2013, el coro obtuvo el 1er premio en la categoría de coros juveniles e Ingrid Kõrvits recibió el premio a la Mejor Directora en el Concurso Coral Internacional "Tallinn 2013". En julio de 2013, el coro participó en el 31 Concurso Coral Internacional de Cantonigros, donde obtuvo el Tercer premio en la categoría de coros femeninos y el 2º premio en la categoría de música folklórica. En julio de 2014, el coro de niñas Ellerhein ganó el Gran Premio en la 53.ª competencia coral internacional de Seghizy.

En febrero de 2015, Ellerhein interpretó la grandiosa pieza de Johann Sebastian Bach "Pasión según San Mateo" en el MustenonFest de Israel.

Heino Kaljuste (1925-1989) maisuak 1951n sortu zuen Ellerhein Children's Choir –Ellerhein Girls' Choir abesbatzaren aurrekaria-, eta berak zuzendu eta garatu zuen abesbatza zendu arte. Tiia-Ester Loitme abesbatzarekin lanean hasi zen 1970ean bigarren zuzendari gisa, eta zuzendari titulararen kargua ere izan zuen 1989tik 2012ra. Koruak Ellerhein izena hartu zuen 1969an, Estoniako Kantu Jaialdien mendeurrenean. Urteen poderioz, Ellerhein abesbatza-ikasketetarako erakunde bilakatu da, urrats desberdinekin: baditu Ellerhein prestakuntza-abiesbatza, Ellerhein haur-abiesbatza eta Ellerhein neskatu-abiesbatza. Kontzertuak emateaz gainera, kantari guztiek kantu, solfeo eta harmonia eskolak jasotzen dituzte. Abesbatza honek Kodaly sistema erabiltzen du erreperitorio berriak ikasteko.

2012ko ekainean, Ellerhein abesbatzak 60 urte bete zituen kontzertu bikain bat eskainiz Estonia Concert Hall aretoan.

2012az geroztik, Ingrid Kõrvits-ek hartu du zuzendari titulararen kargua. Baina ondoan ditu Ülle Sander abesbatza-zuzendari eta solfeoko irakaslea; Egle Veltmann ahots-pedagogoa; Kadri Toomoja piano-jolea eta Sigrid Leppmets managerra. Koru honek mundu osoko konposatzaile ezagunen abesbatza-musika klasikoa eta garaikidea lantzen ditu.

Ellerhein-ek arrakasta izan du nazioarteko abesbatza lehiaketa ugaritan. 2013ko apirilean, gazte-abiesbatza kategoriako 1. saria irabazi zuen "Tallinn 2013" Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan, eta gainera, Ingrid Kõrvits-ek Zuzendari Onenaren saria eskuratu zuen. Urte berean, abesbatzak Cantonigros hiriko Nazioarteko 31. Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuen, non hirugarren saria irabazi baitzuen emakumezko abesbatzen kategorian, eta 2. saria musika herrikoia kategorian. 2014ko uztailean, Ellerhein neskatuen abesbatzak Sari Nagusia eskuratu zuen Seghizy hiriko 53. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan. 2015eko otsailean, Ellerhein-ek Johann Sebastian Bachen "Pasioa San Mateoren Arabera" pieza ospetsua interpretatu zuen Israeleko MustenonFest jaialdian.